

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

### JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEA SAILA

**Jendaurrean jartzea Arratzua-Ubarrundiako udalerrian dagoen "Isasi" onura publikoko 656 zenbakidun mendia mugatzeko eta mugarrizeko espedientea (Nafarrate eta Betolatzako herriena), eta dagokion erreklamazio aldia abian jartzea, Arabako Lurralde Historikoko Mendiei buruzko Foru Arauan eta Mendien Arautegian ezarritakoaren arabera**

Arratzua-Ubarrundiako udalerrian dagoen "Isasi" onura publikoko 656 zenbakidun mendien mugatze lanak eta behin-behineko mugarriztea egin da, bai perimetroarena bai zatiketa proposamenarena, eranskinean agertzen diren mugen arabera eta martxoaren 26ko Mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauak eta otsailaren 22ko 485/1962 Dekretuaren bidez onetsitako Mendien Arautegiak 120. eta 121. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera. Jakinarazten da ikusgai jarriko dela mugatzearen eta mugarriztearen espedientea Urrunagako Administrazio Batzarraren egoitzan (Urartea kalea 4, 01170 Urrunaga), interesa duen orok aztertu ahal izan dezan, iragarri hau argitaratu eta hurrengo hamabost egun baliodunetan.

Era berean, iragarri hau argitaratu eta hogeita hamar egun balioduneko epean, zuzenbidearen arabera komeni diren erreklamazioak onartuko dira. Erreklamazio horiek Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzura zuzenduko dira, bai telematikoki, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, edo beste administrazio publiko baten erregistro elektronikoan, bai Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, 01001 Vitoria-Gasteiz), Arratzua-Ubarrundiako Udalaren bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/15 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetan.

Mugatze lanen kontra erreklamazioa aurkezteko, beharrezkoa da mugatze lanetan bertan egon izana norbera edo norberak izendatutako ordezkari bat.

Jabetzari buruzko erreklamazioei dagokienez, ohartarazten da erreklamazioan berariaz aipatu behar dela administrazio bidea amaitzeko asmoz aurkezten direla, alde aurreko izapide gisa, gero arlo zibileko epaitegietara jotzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 31

*Nekazaritza zuzendaria*

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA

#### ERANSKINA

##### "Isasi" izeneko onura publikoko 656 zenbakidun mendien mugak

Iparraldean: Nafarrate herriaren mendi publikoa.

Ekialdean: jabetza pribatuak.

Hegoaldean: Ziriano herriaren onura publikoko 661 mendia, jabetza pribatuak eta Betolatzako herriaren mendi publikoa.

Mendebaldean: jabetza pribatuak eta Buruagako herriaren "Libusti" onura publikoko 379 mendia.